

# Ataza: mugak eta mugarriak

Ataza honetan Erronkariarrek eta Biarnoko Baretostarrek urtero egiten duten 3 Behien Zergaren zeremoniaren inguruko audio bat entzungo duzu. Bestetik, testu bat irakurriko duzu Hegoaldeko Luzaide eta Iparraldeko Arnegi herriei mugak nola eragin dien kontatuko dizuna. Amaitzeko, honako hizpide honetaz mintzatuko zara: mugak ezabatu ala mugei eutsi.



Ataza honetan honako ariketa hauek egingo dituzu:

Irratsaio baten pasarte bat entzun eta, bitartean, erantzun zuzena aukeratu.

Testu bat irakurri eta hainbat berbaren sinonimoak aurkitu.

Emendiozko esaldi batzuk berridatzi (... EZ EZIK, ...ERE...)

Arrazoi eta argudioak emanaz, egokitzen zaizun rola defendatu beste ikaskide baten aurrean.



## Mugarriak eta 3 Behien Zerga

Entzun mugak eta mugarren inguruan Xabier Kerexeta historialariari egindako elkarrizketa eta, bitartean, aukeratu erantzun zuzena:

**Zergatik jotzen da ia beti lerro bat finkatzera bi lursailen artean?**

- Jabeak berekoiak direlako.
- Bestela gertaera gatazkatuak suertatu
- daitezkeelako.
- Futbol zelaiak egiteko.

**Nortzuen artean egiten da urtero 3 Behien Zerga?**

- Espainia eta Frantziako estatuen artean.
- Erronkari eta Zaraitzu artean.
- Erronkari eta Baretos artean.

**Erronkariko zer herritakoek jasotzen dute zerga?**

- Biarnokoek.
- Izabakoek.
- Bidankozekoek.

**Ze problema zegoen han duela ehunka urte?**

- Ingurua lehor-lehorra izanik ur gabezia zegoen.
- Pinu beltzen erreserba bat zegoen tontorretik hurbil.
- Basurde eta hartz asko zebiltzan eremu hartan.

**Zergatik ez dator bat Kerexeta “Dagoeneko ez dago Piriniorik” esaldiarekin?**

- Auñamendi oso mendi garaia delako.
- Muga inoiz baino markatuago gelditu zelako Pirinioetako Bakearekin.
- Larra inguruko ur-gabezia konpondu ez zelako Pirinioetako Bakearekin.

**Orditik hona, egon da arazorik estatu bien mugak direla-eta?**

- Bai, egon da eta bi aldeetako komisio bat dago horretarako.
- Ez, muga guztiak ondo finkatu zituztelako Pirinioetako Bakean.
- Bai, egon da eta gerrak ere piztu dira horretatik.

# Irakurri eta eman sinonimoak

Irakurri mugei buruzko idatzi hau eta, gero, lotu testutik atera ditugun zenbait hitz euren baliokideekin.

## Testuko hitza

erresuma  
tontor  
atxiki  
bederen  
aitzina  
bateratu  
anitz  
biztanle  
indartu  
muntatu

## Sinonimoa

estatu  
lotu  
sendotu  
antolatu  
gailur  
asko  
elkartu  
aurrera  
herritar  
behintzat



## Luzaide herria eta muga

Espainia eta Frantziako erresumen arteko muga Euskal herritik ezarri zuten, bi partetan banatuz. Pirinioetako Bakearen bidez 1659. urtean hasi ziren finkatzen zehazki banaketa non egin, 1856an bukatuz.

Bi estatuen arteko muga zehazterakoan Euskal Herria zatitu ez ezik, herri batzuk ere erdibitu zituzten; horixe da Luzaideren kasua. Izan ere Errobi erreka Luzaidetik pasatzen da, eta mendi **tontorrekin** batera, horixe erabili baitzuten muga berria markatzeko. Beraz, Luzaide Hegoaldean jarri zuten; baina ez osorik, bere auzo zen Ondarrola Iparraldean gelditu baitzen Arnegi udalerrinari **atxikia**.

Hala ere, badirudi gauzak, pixka bat **bederen**, aldatzen ari direla. Izan ere, 2016ko irailetik **aitzina** Arnegi eta Luzaideko eskolak batu egin ziren proiektu amankomun bati esker. Orain bi herrietako haurrak elkarrekin ikasten dute euskaraz, frantsesez eta gaztelerez. Horretarako, hegoaldeko Nafarroa euroeskualdean sartu izana giltzarri izan da.

Nolanahi ere, Luzaideko eta Arnegiko eskolak ez dituzte fisikoki **bateratu**, bi herrietan atxiki baitute eskola, eta ikasleak dira harat-honat ari direnak. Hala ere, hori ez da arazotzat hartu, ekimenaren arduradunen arabera anitzez zailagoa baitzen Arnegiko baserrietan bizi zirenak Iparraldeko hurrengo herrira garraiatzea Arnegitik Luzaidera eramatea baino.

Eskola-proiektu hutsetik urrunago doa Luzaide eta Arnegiren artekoa. Hala uste du Kattin Begue Luzaideko alkateak. «Herriaren bizia lehen-lehenik eskolatik hasten da: haurrak eskolan, beren herrian... herria maitatzen dute, eta haurren artean ere bada harreman bat segitzen dena handitzen direlarik». Hori dela-eta, poztu egin da bateratzea aitzina joan dela ikusirik. Haurrek ez ezik, bi herrietako **biztanleek** ere **indartuko** dute lotura, alkatearen ustez: «Bi herrien artean badira jadanik harremanak, baina horrek sortzen ahalko ditu bertze gehiago. Lehenik haurren gurasoen artean beharko baitituzte elkarrekin gauza batzuk **muntatu**».

## Berridatzi emendiozko esaldi hauek (ez ezik / ere)



Erreparatu testuko bi esaldi hauei:

- Euskal Herria zatitu ez ezik, herri batzuk ere erdibitu zituzten.

- Hurrek ez ezik, bi herrietako biztanleek ere indartuko dute lotura

Orain, adibide horiek kontuan izanda, bihurtu esaldi hauek:

Ikasleek frantsesez ikasiko dute; euskaraz ere bai

.....

Luzaideko haurrei on egingo die aldaketak; baita Arnegikoei ere

.....

Mendi tontorrak mugatzat hartu zituzten; ibaia ere bai

.....

Paperezko liburuak irakurtzen ditu; baita elektronikoak ere

.....

Artzain horrek ardi gazta egiten du; baita behi gazta ere

.....

## Zuzenketa-orria

### Mugarriak eta 3 Behien Zerga

#### Zergatik jotzen da ia beti lerro bat finkatzera bi lursailen artean?

- ✓ Bestela gertaera gatazkatsuak suertatu daitezkeelako.

#### Nortzuen artean egiten da urtero 3 Behien Zerga?

- ✓ Erronkari eta Baretos arantako herritarren artean.

#### Erronkariko zer herritakoek jasotzen dute zerga?

- ✓ Izabakoek.

#### Ze problema zegoen han duela ehunka urte?

- ✓ Ingurua lehor-lehorra izanik ur gabezia zegoen.

#### Zergatik ez dator bat Kerexeta “Dagoeneko ez dago Piriniorik” esaldiarekin?

- ✓ Muga inoiz baino markatuago gelditu zelako Pirinioetako Bakearekin.

#### Ordutik hona, egon da arazorik estatu bien mugak direla-eta?

- ✓ Bai, egon da eta bi aldeetako komisio bat dago horretarako.

### Irakurri eta eman sinonimoak

#### **Testuko hitza**    **Sinonimoa**

erresuma	estatu
tontor	gailur
atxiki	lotu
bederen	behintzat
aitzina	aurrera
bateratu	elkartu
anitz	asko
biztanle	herritar
indartu	sendotu
muntatu	antolatu

#### Berridatzi emendiozko esaldi hauek (ez ezik/ ere

Ikasleek frantsesez ikasiko dute; euskaraz ere bai  
 (Ikasleek frantsesez ez ezik, euskaraz ere ikasiko dute)

Luzaideko hurrei on egingo die aldaketak; baita Arnegikoei ere  
 (Luzaideko hurrei ez ezik, Arnegikoei ere on egingo die aldaketak)

Mendi tontorrek mugatzat hartu zituzten; ibaia ere bai  
 (Mendi tontorrek ez ezik, ibaia ere hartu zuten mugatzat)

Paperezko liburuak irakurtzen ditu; baita elektronikoak ere  
 (Paperezko liburuak ez ezik, elektronikoak ere irakurtzen ditu)

Artzain horrek ardi gazta egiten du; baita behi gazta ere  
 (Artzain horrek ardi gazta ez ezik, behi gazta ere egiten du)

## Transkripzioa

### Mugarriak eta 3 Behien Zerga

**ESATARIA.-** Jakina da mugak ez direla berdin kontsideratu izan. Zabala da gaia, zalantzarik gabe, eta horretaz hitz egiteko, batez ere barrualdeko mugen —mendiko mugen— inguruan aritzeko, Xabier Kerexeta historialariaren laguntza izango dugu. Eta hasteko, bada, esan al daiteke muga lerro bat dela?

**XABIER KEREXETA.-** Joera horixe da, ez? Joera estatuen arteko muga eta bestelako mugak edo muga pribatuak —baserrien artekoak— ba, horiek ere oso inportanteak dira, ez? Zuk baldin baduzu lursail bat —bai ez?— beti jotzen dute lerro bat finkatzera ze, klaro, bestela erabilera partekatu egiten da, eta, bada, gatazkatsua izan daiteke.

**E.-** Bueno, eta barrualdeko mugen —mendiko mugen— inguruan gauzak zehazten hasita, 3 Behien Zerga izan daiteke garbietako bat. Erronkari eta Biarnoko herritarren artean urtero tradizioz egiten den ekitaldia da hori. Biarnoko abeltzainek 3 behi eman behar dizkiete nafarrei euren aziendak larre eta urak ustiatzearen truke. Aspalditik datorren ohitura da 3 Behien Zerga izeneko hau.

**X.K.-** Bai, hor... bueno, hori da —igual esan beharra dago, ez?— Erronkari ibaian —ibaxa deitzen dute han bailara-edo— 7 herri dira, eta gero, beste aldetik, Baretos (Baretous, frantsesez); badago beste aran bat, ja Biarno partekoa da, eta gutxienez XIV. mendean geroztik egiten dute 3 Behien Zerga, ez? 3 bigantxa dira Baretoskoek, Baretosko herri guztietakoek eskaini behar dizkietenak Erronkarikoei. Gero erronkariarrek ere beren artean banatu egiten dituzte Izabakoek —Izaba delako, zera, ez? muga-herria, nolabait, nahiz eta herria oso behera egon, ez? gehiago tokatzen zaie— banatu egiten dute, ez? baina hori XIV. mendean adostasun batera iritsi ziren, hor beti problema handiak izaten zituztelako. Eta hor problema ura zen, batez ere, ez? iturriak. Han, Auñamendi parte horretan —jendeak ezagutzen badu— Larra, Auñamendira-eta joateko, oso ederra da paseatzeko, baina oso toki lehor-lehorra da karstikoa delako; orduan ur-puntuak oso gutxi dira. Horiek ziren disputatuak.

**E.-** Bueno, eta horrelakoetan jakin nahi izan dugu orografiak asko baldintzatzen ote duen muga. Orografiak ba ote duen muga ezartzeko gaitasunik. 3 Behien Zergaren inguruan, esate baterako, San Martingo harria bera hartzen da mugarri modura.

**X.K.-** Bai; bai, bueno, hain zuzen Pirinioetan hori, zerez, Pirinioetako Bakea sinatu zenean, hain zuzen, Faisai uhartean-eta, bueno, Mazarinok, zerez, Frantziako erregea ez, baina agintzen zuenak; esan omen zuen “Dagoeneko ez dago Piriniorik” ez? Eta hain zuzen inoiz baino gehiago markatu zuen Pirinio, markatzeko bi erresumen arteko mugarena. Baina... eta harez geroztik hasi ziren mugak-eta finkatzen, zehazten, oraindik badago komisio bat noiz edo noiz biltzen dena, ze, oraindik ere zalantzak-eta izaten dira. Baina batez ere XIX. mendean, bigarren erdialdean, hasi ziren, baina oraindik ere zaila izaten da eta orduan, klaro, Parisetik edo Madriletik ikusita: han mendi urrutiko batzuk, eta oso altuak toki batzuetan; eta ematen du, bada... orduan, joera zen muga jartzea gain-gaiean, ez? bi isurialdeen artean, ze ura ez zelako disputatua. Klaro, ez zen disputatua haien artean, baina bertakoen artean bai izan zitekeen. Dena den, Pirinioetan bakarrik % 55ean dator bat isurien aldeko banaketa eta Frantzia eta Espainiaren arteko mugarena.